

Eliza, euskararen historia sozialean

SARRERA-OHAR GISARA

JOSEBA INTXAUSTI

Elizaren eta euskararen arteko harremanen historia soziala anbiguitatez betetako zerbait bezala ageri zaigu sarritan.

Gaur egun dakizkigunekin oso erreza izango litzateke, errazegia, lehenik Elizaren alde sekulako mintzaldi apologetikoa egitea, eta biharamunean, ordu eta toki berean, hizlari berberak, halaxe nahi balu, haren kontra egundoko hitzaldia moldatzea. Alde baterako nahiz besterako materialik ez bait da falta: Azken buruan, gaia behar bezala aztertu gabe ote dagoenaren susmoa sortzen zaio nornahiri: ezagutu, ez ote dugun oraindik ongi ezagutzen, alegia, Elizak hizkuntzaren aldetik gure euskal hizkuntzkin izan duen burubidea.

Erljioak eta hizkuntzak

Gizarte-zientziek erakutsita daukenez, gizarte eta kultura oso ezberdinetan eta histori une guztiz aldenduetan, erlijio-bizitza eta hizkuntzen erabilera soziala elkarrekin harreman estuetan ageri zaizkigu.

Alde batetik, hitzak eta hizkuntzek komunikazio erlijiosoan duten lekua erakusten digu erlijio-antropologiak; bestalde, erlijio-soziologiak edo hizkuntzen eta erlijioen historiek eliz erakundeek hizkuntzen bizitza sozialarekin

izan duten, edo duten, zerikusia askotan azpimarratu dute.

Fenomeno erlijioso-linguistikoek herri eta kontinente osoen egoera soziopolitikoak ikutu eta itxaraldu dituzte mendeak zehar. Erljioak eta hizkuntzak elkarrekin joan dira proselitismoan eta misioetan: ez dago Kristianismoaren eta Islamaren zabalkunde-historia gogoratu baizik. Batzutan, erlijio berria zekarren hizkuntza ezarri da lurralde konkistatu edo kolonizatuetan, eskola koranikoan edo kristau-katekesian adibidez (Ameriketako eta Afrikan); bestetan, erlijio-beharrek herrien arteko benetako kultur eta hizkuntz topaketa bat sustatu dute, itzulpenen politika erabakior bat gidatuz edota erlijio-ospakuntza eta eginkizunetan harreman linguistikoak era batean nahiz bestean eratuz. Japonia eta Txinatik Europako Mendebalderaino errepikatu den zerbait da hori.

Topaketa kultural hauetan (sarritan erakunde ongi hierarkizatu baten gidaritzapen gertatu izan direlako) politika linguistiko modernoan oso gaurko ikuspegial ageri dira. Hamaika funtsezko puntu jakingarri gogora liteke: agintedunen plangintza-betekizunak, erakundeen erantzukizun linguistiko-legalak, hizkuntzen autonomia eta batasun-arazoak definitzea, etab.

Euskal Herriko kasua ere testuinguru sozio-historiko orokor horretan irakurri eta ulertu beharko genuke. Gure hizkuntz historiak izan dezakeen ezagarrri berezirik ukatu gabe ere, premiazkoa ikusten dut Elizaren (edo Elizen) eta euskararen arteko harremanen historia -analisi on baterako- testuinguru zabal batean kokatzea. Harreman soziolinguistiko horiek, zalantzarik gabe, egiteke dagoen hizkuntzaren historia sozialearen barnean ikusi beharko lirateke, orain arte baino bide emankorragoren bat urratu nahi bada, bederen.

Ez da ahantzi behar Europako Mendebalde honetan ere Eliza kirstauek une historiko jakin batzuetan, Erreformarekin batipat, hizkuntzen gidaritza sozio-kulturala baren gain hartu zutela. Bohemiako husitek, edo Agrikola-k Finlandian (1543) -adibideren bat ekarri nahi bada- lekuri behinena dute hizkuntza nazionalen zuzpertzean, Bibli itzulpenak eginez edo elizetako jaiak herritarren hizkuntzetan ospatuz. Ez da ahantzi behar, itzulpen hauek elizetarako hainbat egiten zirela gaueroko gamiliarteko irakurketarako.

Baina Eliza kristauen hizkuntz jokatubidea ez da beti eta haietako edozeinetan berdina izan: Eliza katoliko latinoak bere politika berezia, eta Eliza protestanteek garbiki kontrajarria, egin

izan du Aro Moderno-Garaikideetan gaur egunerarte: Bibliaren erañilera herritarra mugatuz eta liturgia latinez mantenduz, alde batetik, eta prediku eta kristau ikasbiderako, hizkuntza herritarrak erabiliz.

Dikotomia linguistiko funtzional hau lege finkoa izan da Eliza katoliko latinoan Vatikanoko II. Kontzilioa arte (1962-1964). Politika orokor horrek markatu du, XVI. mendetik hona, Elizak hemen, Euskal Herrian, izan duen euskararekiko burubidea, elizetako ospakizunetan lehenik eta eliztarrek euskarari eman dioten garapen literarioan gero.

Euskal Herriko Elizak eta euskara (1545-1876)

Euskal Herriko Elizek ofizialki aintzakotzat hartu izan dute, era mugatu batean behintzat, euskaldunon hizkuntza: euskara. Kasu puntualik miresgarriena, agian, Eliza Erreformatu kalbinistarena izan zen, XVI. mendean: Eliza beraren laguntzaileen obra da: Testamentu Berria (1571). Ekintza hau, garaiko beste Erreforma-egokieratako antzeko ereduak jarraikiz gertatu zen, noski. Ahalegin honen atzetik lan-talde bat zegoen, Leizarraga-ren gidaritzapean eta Nafarroako Erreginaren babesarekin. Dударik gabe, behingoz bederen, orduan elkartu ziren bi aginteak -zibila eta eliztarra- euskarari bide modernoak urratzeko: Erabaki instituzional bat zenez, aukera historiko itxaropentsua zen hura; baina, zoritxarrez, ez zuen ondorio jarraitu eta erabakiorrik izan gure hizkuntzaren hitorian. Guztiok dakigu zergatik.

Trento-koaren ildotik jaio ziren Eliza katolikoaren erabakiek, apalagoak izanda ere, segida iraunkorragoa izan zuten, eta, horregatixe, ondorio handiagoak izan dituzte gure literaturan eta euskararen garapenean. XVII. mendeko Kalagurriko Sinodaletan bilatu ohi da, Trento-ondoko hartan, Eliza katolikoak gure euskal herrietan egin nahi zuen politika linguistikoaren definizioa (1602, 1621, 1700).

Hierarkiak eta Erakundeak, Erakunde bezala, Sinoduetan arautu ohi zituzten Kontzilioaren araberako aplikazio-legeak. Eta Euskal Herrian ere halaxe gertatu zen. Legeen eta praxiaren artean beti egon ohi diren aldeak eta kontraesanak aherentzi gabe ere, arau hauek badute interes historikorik; garaiko hizkuntz kontzientziak ezezik, asmo praktikoen berri ere jakin dezakegu testu horietan:

.... Y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado di-



ferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa, y Alaba: Estatuímos, y ordenamos, que los Señores Obispos, nuestros Sucesores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, según según el uso de las dichas Provincias, para que los curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia.

Testuiguru honetan ulertu behar da doktrina edo kateximen argitalpenen historia, hizkuntzaren eta eliz ideologiaren analisisrako langai aztergarriak utzi dizkiguna. Rementeriak eman digu guztiaren berri.

Legeek eta pastoral-eginkizunek eztenkatuta jaio zen eliztarren tradizio txo honek, eliztar batzuren baitan beste ahalegin handiagoetara zabaldu zuen hizkuntzaren ardura.

Eliztarren lanak

Lehenengo Etxepare gogoratu behar genuke, bere garain egun-eguneko gizona (1545). Jaierazko eta amodiozko olerkien ondoan hizkuntzaren laudorio eta itxaropenezko defentsa suharra utzi ziguna. Ernazimentuaren barnean, bere belaunaldi aurrerazaleenarekin bat egin da, sintonia osoa izan zuen Etxeparek hizkuntzaren kantu poetikoa idatzi zigunean, 1520-1560etako hizkuntza herritarren alde/kontrako eztabaida ernazentistan Europako korrante moderno-nari helduz ("Kontrapas", "Sautrela" poemak).

Etxeparek, gainera, kultura laikoaren erakutsi zuen bitartean (Trento-aurrekoa da juxtu-juxtu haren lana), Axularren lanak (kasik mende bat geroago 1643), Kontrarreforma katolikoaren baretik eman zuen bere fruitua: Autorearen gaitasun pertsonalaz gain, bi arrazoi-moduk lortu zuen Gero kalean jartzea. Alde batetik, eliz Erakundaren pastoral-berrikuntzak (predikua beren betekizuna bait zuten Kontrarreformako Erretoreek) eta Sarako Erretorearen inguruko apez-talde euskaltzaleak: "Euskaldunik baizen etzen" bilera haientatik eman zitzaion, eman ere, liburu burutzako mandatuak. Ez Leizarrag, ez Axular izan ziren, beraz, inguru euskaltzalerik gabeak. Bi kasutan talde zirikatzaileak eliztarrek ziren, higanautenean laikorik ere izan arren.

Hurrengo mendean ere beste hainbeste gertatu zen, baina Hegoaldean orainoan, eta euskal lanei beste alde berri batetik helduz. Elarren miresle eta zerbait kritiko ere baziren Larramendi (1690-1766) eta Kardaberaz aipatuko ditugu: gure euskal literatur normalizazioaren bidean, aurrekoak onduz, ekarpen berriak egin zituzten biok. Andoaindarrak, lehenik, premiazkoak ziren hizkuntz maisugu eta gidaritzak eman zizkien garaikoei. Etxepare Ernazimentuaren barnean eta Leizarraga Erreformaren baitan beren garaiko seme izan ziren bezala, Larramendik ere ezagutu zuen Frantzia eta Espainiako Akademi eraikuntzaren politika, eta usnatu zuen etorkizuna nondik joan zitekeen: "Fáltanle las providencias de Academias, escuelas para la educación de nuestra juventud" dio euskararen gabezia hau gogoratuz. Eliza barneko egitekoak aherentzi gabe, gizarte zibilari ere bere erantzunkizunak gogoratzen zizkion larramendik. Ez zen horretan lehenengo ahotsa baina bai ozenkien mintzatu zena.

Kardaberaz (1703-1770) erabat beste jite bateko elizgizona zen: apaizei hizkuntz pentsamendu gidari bat eman nahi izan zien ("Euskararen Berri Onak" 1761), gero -gure egunetararte edo- apaiz euskaltzaleen arma ideologiko bilakatu zena: "Euskarark burua jasotzea, Jainkoak nahi du" zioen Kardaberaz-ek. ("Euskaldun, fededun" haren bestealdeko aurpegia, lehenengo begiratu baten behinepehin). Teologia, santutasuna (eredu bat, hortaz, eliztarrentzat) eta euskaltzaletasun militantea elkartu ziren idazle honengan. Zoritxarrez, hurrengo belaunaldian heldutasun hobegotara iritsi zitekeen lagunarte hau erbestera bidali eta sakabatu zuten, hemen barnean berehalako segida gabe bukatuz (Josulagunen irazpena, 1767). Huraxe gertatu zen euskal kulturaren lehenengo

erbestealdia (Mendiburu Italian hil zen 1792).

Eliztarren hurrengo pauso interesgarrienak J.A. Mogel (1745-1804) eta Iturriagari zor dizkiegu. Mogel ez da batere baikor agertzen eliz jendearen euskaltzaletasunaz, baina, bere aldetik, lanari ekin zion, hizkuntzaren berezko gaitasunak defendatuz eta hizkuntz eredu praktikoak sortuz (Astarloa-ren buruberokerietatik beti ere urrun).

Paskual Iturriaga-k (1778-1851), lehendik ere ezaguna zen eskeari jarraikiz, euskararentzat praktikotasun sozial berri bat eratu nahi izan zuen: eskolako irakaskuntzarena. Ohartuta zegoen Liberalismoak zeharren eskolagintzan presente egotearen premiaz, eta hark euskararen etorkizun sozio-linguistikoaz zituena zenbait ideia baztergarriak izanda ere, ezingo diogu ukatu euskara eskolaratzeaz utzi zizkigun ideia batzuren mehezimendua.

Korrika batean aipatutako puntu hautatuok, irakurleak ongitxo dakienez, ez dute agortzen eliztarren euskaltzale-lana. Bere garaietan modernoena edo eragileena izan ziren batzuk ekarri ditut hona. Oro har, zera esan liteke, XVI.etik XIXaren erdialderaino (beharezko eta justiziazko salbuespen guztiak gogoan hartuz: Oihenarte Etxeberri Sarakoa, etb.) zenbait elizgizon bakanak erakutsi zuen, taldean edo bakarka, hizkuntzarekiko kontzientziarik biziena eta lanerako grinarik saiatuena. Eliz Erakundeak ez zien sobera lagundu langile euskaltzale hauei, eta Axularrek halako mi-respena zion Bertrand Etxauz (1556-1641) bezalako hierarka mezenarik apenas ezagutu genuen geroztik. Hala ere, euskal nortasunaren bilaketa mantso honetan, mugarri estimagarriak dira gogoratu ditugunok, gure azken ehun urte hauetako "Eusko Pizkundea" ren aurretik.

"Eusko Pizkundea" eta eliztarrak (1876-1975)

Hizkuntzaren ikusmoldean eta tra-taeran, Eusko Pizkundeak oinarritzko aldakuntza bat aurkeztu zien Elizari eta euskaltzale eliztarrei: Euskal herriak bere burua naziotzat hartu nahi zuen (Euskadi), eta naziotasun honetan ezau-garri berezle bezala definitzen zuen kontzientzia abertzaleak hizkuntza. Konpromezu berri baten herronka zen hori Elizarentzat.


Erritmo eta jite ezberdinekin eran-tzun zuten Hierarkiak eta eliz jende xumeak: Apezpikuek, Ordena erlijiosoek, apaiz sekular, fraide eta mojek. Intuizio argiz, atzerapen desegokiz, setakeria ilu-

nez, lan arriskatu eta utzikeria lotsagar-rriz betetako ia mende oso bateko his-toria izan da Elizaren hizkuntzarekiko burubidea. Hemen dena laburbiltzea ezinezkoa litzateke benetan. Irakurle jakitunak aski du zerrenda honetako izenak banan banan gogoratzea, hainbat alor ezberdinetako eliztarren pre-sentziaz jabetzeko: Lakoizketa, Azkue, Tx. Agirre, Hiriart-Urruty, Aitzol, Ba-randiaran, Olabide, Lafitte, Lekuona, etab. Bakotza da historia oso bat, eta berezia.

Gaur egun nekez egongo ginatke dauden lekuan eliztar batzuek burutu zuten lana egin ez balit; baina azken mendejo hizkuntz hondamendia ere ulertezina da, adibidez, eliztarrek gidaturik irakaskuntza pribatuaren kola-borazio gaiztorik gabe... Beste edozein histori unetan baino ere anbiguitate kezgarriagoak topatzen ditugu XX. mendean.

FRankismoaren lehen aldiaren nekez amestu zitekeen (1937-56) zuzperraldi herritarrerako eliz ikastetxeetan prestatu zen (apaizgari, fraidegaien artena) hizkuntzaren zerbitzuan normalizazio belaunaldi bat (berrikitan koantifikatu ere egin da fenomeno sozio-kultural hori). Bestelako kultur ikastetxe zibilen hutsunea bete zuten haiek, askotan gehiegi ohartu eta programatu gabe. Batez ere, aintzen kontzientzietan hizkuntza-ren balio nazionala argi geratu zen.

Hala ere, alde positibo nabari-ean, Elizaren euskal lanean -eginda-koan eta egin gabe utzitakoan- badago



alde ilunik franko. Dena dago serio-ski aztertzeko.

Hutsuneak eta esperantzak

Eliza katolikoak Euskal Herrian bizi izan duen historia soziolinguisti-koan, egindako lan handiaren ondoan, berehala soma daitezke eskastasun bat-zuk ere. Bat -bereziki euskal Elizari egotzi ez diezaiokeguna, baizik eta Eli-za katolikoaren politika orokorretik datorrena- herri-hizkuntza eliz barrura erdizka bakarrik eraman izana da. Eliza Erreformatuek, XVI. mendetik aurrera, Biblia eta Liturgia herritarren bidez herri-hizkuntzen alde egindako lana fal-ta izan zaigu. Europako lurralde errefor-matuetan elizetatik sukaldeetara luzata-ko irakur-ohiturak seguraski motza-goak eta ahulago izan dira katoliko-aren artean, eta gurean. Baina ohar hau "izan balizko" historiaren bati buruz jardutea da, beharbada.

Bizitza zibilean garai bateko euskal-tzale eskolatu askok bezala, eliztarrek ere beren arteko egunerokoan erdaraz egin izan dute talde-bizitza. Seminario eta barnerako ikastetxeetan erdaraz ikasten zen, eta euskararen lekua, one-nean, oso mugatua izan da: Oraindik ere, dakidanez, Euskal Herrian ez dago eliz ikasketak osorik euskaraz egiteko aukerarik.

Pastoralean eman izan du euskal Elizak hizkuntz normalizatorako eredu instituzional eginena. Mendez mende iraun duen politika hori -bere alde kriti-kagarri guztiakin ere- errespetagarri gertatzen da Katekesi eta Predikuari dagozkienetan; ezin liteke beste hainbes-te esan irakas-munduari buruz.

Oro har, euskal gizarte osoari beza-la, Elizari ere euskalararekiko asmo so-zial garbirik ez diogu ikusten historian. Gainerako indarren aintzindari izan zite-keenari hindinahi historiko bat falta izan zaio. Eliztar euskaltzale askok ohorea besterik ez du merezi: orduak eta lanak eman zituelako, lur helkorrean ere uzta ona erein zuelako. Jutziazkoa iruditzen zait eliz Erakundetik eta eliztar erdaltzale edo euskaldun-gaiztoe-tatik euskaltzaleok ongi bereiztea.

Euskal nazioa bere modernotasun eta balio osoan jasotzeko aukera izan dezakegun egokiera honetan, historiak sala ditzakeen errakuntza guztiak aitortzeko prest egon beharko lukete eliztar-reek. Baina, batez ere, etorkizunari erant-zuteko prest: hizkuntz plangintza na-zional batean modernizazioaren eta Euskadi batu baten aldeko erantzuna emateko prest.